

EUSKARA DISKRIMIMATZAILE ALA DISKRIMINATUA?

Zapaltzaileek bide eta modu ezberdinak aurkitu izan dituzte euren asmoak beterazteko. Batetik komeni zaien legeak eginenez eta bestetik lege horiei zuzentasunezko itxurak emanez. Eta hala eta guztiz ere, maltzurkeria hutsez nahi dutena lortzeko bide erosorik aurkitzen ez dutenean, zapalduz direnak iraindu eta zapaltzaile balira agerterazten dituzte.

Arrazoi handiz esan ohi da otsoak ardi jantzi ere beti otso dirauela edo eta tximinoak jantzirik apaingarrienak baditu ere tximino jarraitzen duela.

Urteak joan urteak etorri, hemen argitu gara euskaldunok euskara, gure hizkuntza nazionala bizirik aurrera atera nahian, inguruetakozko hizkuntzen enbata erasokorrean aurre egin ezinean eta hona non hasi zaizkigun gure betiko etsai zentralistek euskara diskriminatuzeko bide bilakatu dela aldarrikatzen. Bama zer dela eta guztiori? Euskara administrazioko zenbait lanpostutako sarrera-lehiaketetan %10eraino baloratzen delako!

Frankok, gure Lurraldeak erdaldunez bete eta foizkuntzan bizitzarako beharrezkoak zitzaizkion arnas-iturriak etenez ito nahi izan zuen euskara. Ala baina, alperrekoak bihurtu zitzaizkion ahalegin handi guztiak. Ekin bai, su eta ke, garretan ekin zioten haren jarraitzaileek euskararen lorratzak ere desagertarazten, baina ezin.

Hala ere, besterik ezean, euskararen eguneratzea eta berbiztea hainbetetan atzeratzea lortu zuten. Izan ere, zer nolako egoeran izango ete genuen gure euskara hainbeste urtetan zokoraturik, zapaldurik, iraundurik izan ez bagenu? Seguraski gaur egun guztiz galdurik edo erdi-galdurik ikusten dugun hainbat tokitan indartsu iraungo zuen.

Ba zirudien, bestalde, azken urteotan Euskal Herri osoan zehar izerditsu eta indartsu egindako ahalegin neketsuei esker, hasiak ginela bide berriak urratzen. Gure betiko etsaiek agintaritzak eskuratzeko barruko buruketan ari ziren artean sendotuz zihoan gure hizkuntzaren ingurua, milaka euskaldun idazle, profesionari, irakasle bazterretan sortuz. Nork uste izango ote zuen halakorik direla 10/15 urte?

Eta aurrerakada guzti hori geure diruz, geure ordu luzeetako lanez, geure ahalegin hutsez lortua izan da. A/Iadrid-etik, gobernu zentraletik ez digute inolazko dirulaguntzarik enian. Besterik ezinean, era guztietako oztopoak jarriz utzi behar izan digute. Euskal Herri osoaren lorpena dugu.

Dena dela, guzti hori hala baldin bada ere, ba dugu oraindik gure artean erderaren bunker sendorik. Ba dugu oraindik Agintantza zentral zapaltzaileak beti imperialismoa ezartzeko erabili izan duen menperabide iraunkorrik. Hain zuzen, aide guztietara hatzaparrak zabaltzen dituen Administrazioa. Beti izan dugu zentralismoaren laguntzaile sutsua.

Eta oraingoan, Administrazio hori euskalduntzen hasi garenean, bunker horretatik eraso nahi gaituzte. Euskararen aurrerakadak ikusirik, inperioko hizkuntza arriskuan ikusi behar izan dut, nonbait, eta zorrotz hasi zaizkigu langa gogorak eta orma sendoak jarri nahian. Hor asi zaizkigu jo eta ke, amorru bizitan Euskal Herrian sortzen ari diren lanpostuetarako sarreralahiaketatik euskarari ematen hasia ginen %10eko balorazioa kendu nahian.

Orain arte ezer gutxi gizonaren eskubideez arduratu dire-

nok, hor ditugu ardi jantziz estaldurik berdintasunaren eta zuzentasunaren zuzia eskutan harturik euskararik ez dakitenek diskriminatu egiten direla aldarrika. '

Azken urteotan, zenbait Erakunde publikotan euskararen eman izan zaion %ko apurra era kendu nahi dute. Oraintsu, aho batez, euskara baloratzea onartu zuten Udaletan ere horren aurka hasi zaizkigu PSOekoek. Eurek ikasi nahi ez eta besteek ikastea zein erabiltzea galerazo nahi! Euskara, hizkuntza baliogabea bihurtu nahi dute nonbait, ageri-ageriko salakuntzarik ez jasotzeko!

Hon ez! Inork ez dizu esango euskararen edo eta euskal kulturaren aurka dagoenik, azpijoko lotsagabez euskara ito eta hil nahi badu ere. Itxura hutsezko arrazoi ustelak bide direla, euskararen aldeko ahalegin osoa, Administrazioa euskalduntzea, euskaldunon lepora bota nahi digute, geure aparteko diruz (langileok euskalduntzeko itzelezko dirutzak iraungi eraziz) egitera behartuz

Baina nork ordaintzen du Euskal Herrian erdaraz egiten den administrazioiko lan osoa? Ez ote dugu euskaldunok zergarik ordaintzen? Eta Administrazioiko lana herri diruz ordaintzen baldin bada, ez ote dugu euskaldunok zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubiderik? Edo eta orain arte bezala, euskararen aldeko ekintza guztiak geure pratiketako aparteko diruz ordaindu behar ete ditugu?

Ibili ere orain hor gabiltza euskararen, geure hizkuntza nazionalaren aldeko egintza guztiei, Euskal Telebistari, maisu-maistrak euskalduntzeari, Unibertsitatean euskarari bideak irekitzeari eta abarri beste zenbait egintza premiatsu aurrera ateratzeko beharrezkoa dugun dirua iraungiz erantzuten. Beti horrela, guztiok geure kontura egiten jarraitu behar ete dugu? Ez ote du Madnd-eko gobernu zentralak hainbeste urtetan zehar egin digun lapurketaren zorrak ordaindu beharrik?

Antza danez, Madriden, bildurtu edo egin dira Euskal Herrian etengabe euskararen alde lanean ari den mugimenduaz ja-

betzen. Lau-bost bum gogor zoro batzuren Icloa zirudiena, horra non zabaldu zaien Unibertsitateraino! Eta, jakina, bcsterik ezincan oraindik nahiko kontrolaturik duen Administrazioa kutsarik gabc zaintzeari ekin diote, nonbait.

Bat bateau, euskara gixajoa, oraindik hiltzorian bazterturik duguna, zapaltzaile bihurtu zaigu! Erdaldunen, euskara ikasi zein erabili nahi ez dutenen zapaltzaile, noski! Euskarari lanpostueta-ko sarrera-lehiaketetan %10eko balioa emateak erdaldunak diskriminaten omen ditu! Eta zer gertatzen da euskaldunok proba horiek erdaraz egitera behartzean? Berdin ote da azterketok ama-hizkuntzan edo eta ikasitako hizkuntza batetan egitea?

Administrazio mailetako azterketetan eskuhartu izan dugunok ondo argi dakigu zer gertu izan den halako hainbat azterketetan. Eta hori PSOEkoak mahaiburua osostu duten lekuetan! Adibidez, Basaurin behin baino sarriago gertatu izan zait bertara euskarako azterketa egitera joan eta euskaldun guztiak aurreko gaztelerazko diktaketa-erredazioan baztertuak zirela ikustea. Eta protestak egin arren, alperrik, oinarrietan hala agertzen baitziren baldintzak. Nork jarriak? Erdaldunek, jakina!

Orain beste bitxikeria bat ari zaigu gertatzen udaletan. PSOEkoek gehiengoak onartutako baremoen kontra direnean, Gobernadoreangana jo eta honek ihardetsi. Hori bai dela hogetamaika eskutik hartuta jokatzea! Demokrazia jatorra, ezta?

Baina nor dugu administrazioan diskriminatua? Euskalduna ala erdalduna? joan eta proba egin baino ez daukazu. Hasi zaitez lehiatilank lehiatila euskara hutsean ea zer gertatzen zaizun ikusten! Eta hori nahiz eta Konstituzio dontsuak hern hizkuntzak onartu, Estatutuak euskara hizkuntza ofizialtzat izendatu eta Eusko Legebiltzarreko Euskararen Legean euskaldunok Administrazioaren aurrean euskara erabiltzeko eskubide osoa dugula aitortu!

Administrazioan (zoritarrez, diote!!!) euskaldunik ez dagoela eta erdara erabiltzera behartzen gaituzte eta gero lanpostu berriak betetzeko sarrera-lehiaketan euskarari puntu batzu eraa-

ten zaizkiola eta hor ditugu zarataka bazter guztiak haustu beharrecan! Ez omen da diskriminaziorik sortu behar! Konforme. Baina nola zuzendu, bestela arazoa? Lehendik lanean ari direnak cuskara ikastara behartuz? Eta nahi ez badute zer? Ez ote litzateke hori bortxaketa handiagoa izango? Zenbat urtetan itxaron beharko dugu, gainera, euskaldunok zerbitzuak euskaraz jaso ahal izateko? Erdaldun hutsok euskaraz ikasi arte?

Bestalde, denok dakigu zenbateriano den euskalduna Euskal Herrian dugun Administrazioa. Daturik nahi duenak irakur bitza EGIN egunkarian Abuztuaren 26an eta Irailaren 7an argitarata emandako datu jakingarriak. Gipuzkoari dagozkionak dira, bai, baina nahiko adierazgarriak. Hurrengo idazpuruak irakurtzen ditugu: *Komunitate Autonomoaren zerbitzuetan laurdena da euskaldun Gipuzkoan, edo eta Gipuzkoako Foru Diputazioaren administrazio giroa erabat erdalduna da.* Eta bestelako hau eranstendu: *funtzionari euskaldun erdieh ere ez du euskara erabiltzen.* Ikustekorik, gero! Baina nola erabili alboko beste funtzionarioek euskararik ez badakite?

Aurreko datuok Euskal Lurraldeko aide euskaldunenari dagozkionak ditugu. Pentsa ezazue nolako egoera izango dugun Bizkaian, bertako langileen arteko euskaldunen kopurua %5era heltzen ez delarik. Eta Araban zein Nafarroan? Hobe isiltzea!

Egoera honela delarik diskriminazioa egitea ei da euskarari funtzionari lanpostuetako sarrera-probetan baiorazioa ematea! Euskaldunok, antza danez, zerbitzu guztiak hartzen 'ditugu euskaraz, ez dugu inolazko diskriminaziorik jasaten! Zer deia eta kezaten gara, gainera, denok erdara jakin beharre baldin badugu? Arazoa, kaska gogor lotsabako batzuren kontu hutsa omen dai

Une honetan, administrazioan sartzan diren berri guztiek euskaldunak izan arren, nekez eskainiko lituzke Administrazio horrek zerbitzurik gehienak euskaraz, lehendik erdaldun funtzionarioz beteta daude postu gehienak eta.

Hori dela eta, sarreran euskaldunak hartzeaz gainera, bertan lehendik- diren funtzionari horiek euskalduntzeko plangintza

egokiak egin bcharra ere badugu bazterretan. Eta *hau gure Agintariek, omíngoz zeharo, aide batera utzirik duten arloa dugu.*

Ez Eusko Jaurlaritzan, ez Diputazioetan, ez Udal handietan, oraindik ez dute bertan lanean ari diren funtzionariak benetan eta epe batetara txandaka txandaka, denak batera ezin badira ere, euskalduntzeko biderik asmatu, Egin dira bai, proba txiki batzu baina oso gutxi.

Horretaz ba dute zer ikasi Erakunde pribatu zenbaitengandik. Dirua irabaztea helburutzat duten hainbat erakunde pribatutan publikoetan baino urrats sendoagoak eman dituzte. Kasu aipagarriak ere badugu. Hona hor Bizkaiko Aurrezki Kutxa! Bertan, egin duten euskarako plangintzaren bidez, urte gutxitan zerbitzu guztiak eskaini ahal izango dituzte cuskaraz.

Baina guk zer egin? Euskara eskatu Administrazio harreman guztietan eta euskara erabili eguneroko bizitza osoan. Honen uste dugun baino eragipen handiagoa du. Oraindik, zoritxarrez, Administrazioaren aurrean eragipen handiago dute euskaldun sutsu batzuk eginiko erdararen aurkako ukapenek, euskararen aide aldarrikatu edo egin diren hizkuntz-legeak eta hitz gozoez baino.

Patxi Vribarren

Oharra: Interesgarri iruditzen zait Bizkaiko Aurrezki Kutxan, langileak euskalduntzeko egin duten plangintza hemen aurkeztea, edonon erabil daitekeena dela uste dut eta.

EUSKARA IKASTEKO ETA HOBETZEKO PLANGINTZA

Bizkaiko Aurrezki Kutxako Administrazio-Kontzeiluak, 1985/III/29an egindako bileran, beste-batzuren artean, erabaki hau hartu zuen:

Erakundeko langilegoari euskara ikasteko eta hobetzeko trebakuntza beren eskuetan izan dezaten, aurrerago aipatzen diren trebetasun mota ezberdinak arau osagarri bat eginik onartzen dira:

A-HKASKUNTZA

A-1 iOoisigg

Astean 5 egunetan goizeko 9 arte. 8etatik aurrera lan-denbora era-honetan banatuko da: erdia langilearen kargu eta beste erdia Erakundearen kargura. Guztiau osatuko da astean behin arratsalde 3 ordutako eskola-egin ondoren.

A-2 Arraijsaidez

Astean 3 egun eta egunean 3 ordu. Ikastaro guztiaren kostua Erakundearen kargu joango da, Irakasleen ordainketa, eskualde bakoitzan behar diren tokiak etab.

A-3 Aoratealdez

Ikastoletan, Euskaltegietan edo Gau-Eskoletan matrikulatzeko eskubidea edukiko dute Kutxak antolatutako ikastaroetan parte hartu ezin duten langileek. Hauei Kutxak ordainduko dizkie ikask^ten %100 (testu liburua, matrikula eta ikaskuntzaren kostua).

A-4 (Sairinti-ikastaroars (5-1)

Kutxa barman edo Kutxatik kanpo gutxienez 300 ordu gainditu dituzten ikasleek 2 astebetetako barru-ikastaro baten parte hartzeko ahalmena izango dute. Erakundeak gastu guztiak ordainduko ditu baina 6 egun oporretatik jarri beharko ditu langileak.

A-5 Basro-ilkasteroetain] 5i-2J

Bai goizez edo bai arratsaldez ikasten dabiltzan langileek, 4 astebetetako barru-ikastaroak egiteko ahalmena izango dute, berauek txandakatuak izanik.

1. A&feanr. Gastu guztiak Erakundearen kargu izango dira.
2. Asteami: Berdin, eta 2 egun ez dira oporren kargura joko.
3. Asteara: Berdin, eta 4 egun ez dira oporren kargura joko.
4. Astea: Berdin, eta asteko egun guztiak ez dira oporren kargura joko.

A-© £Bai™-filkasliar©@SaBi5 f11-3)

a) 300 ordutako maila gainditu duten langile guztiak 12 astetako barru-ikastaro baten matrikulatzeko eskubidea izango dute. Erakundeak gastu guztiak ordainduko ditu. Denboraldi honetan langileek beren soldatetik %70 jasoko dute eta oporretatik 21 egun jarri beharko dituzte.

b) 400 ordutako maila gainditu duten langile guztiak 9 astetako barru-ikastaro baten matrikulatzeko eskubidea izango dute. Erakundeak gastu guztiak ordainduko ditu. Denboraldi honetan langileek beren soldatetik %70 jasoko dute eta oporretatik 15 egun jarri beharko dituzte.

c) 500 ordutako maila gainditu duten langile guztiak 6 astetako barru-ikastaro baten matrikulatzeko eskubidea izango dute. Erakundeak gastu guztiak ordainduko ditu. Denboraldi honetan langileek beren soldatetik %70 jasoko dute eta oporretatik 10 egun jarri beharko dituzte.

d) 600 ordutako maila gainditu duten langile guztiak 4 astetako barru-ikastaro baten matrikulatzeko eskubidea izango dute. Erakundeak gastu guztiak ordainduko ditu. Denboraldi honetan langileek beren soldatetik %70 jasoko dute eta oporretatik 7 egun jarri beharko dituzte.

B - ALFABETAT2EA

Alfabetatzea nahi duten euskaldunek, eskualdeka antolatuko diren taldeetan

KULTURA

73

r

matnukultzeko ahalmena edukiko dute.

Nahi dutenek, 4 aste txandakatueta egin ahal diren barru-ikastaroetan parte hartzeko eskubidea edukiko dute A-5 (i-2) puntuan aipatzen diren baldintzetan.

Halere A-6 (1-3) d) puntuan esaten diren baldintzetan parte hartu ahal izango dute.

C - SARGA

Aurtendanik, Euskarazko Titulu Ofiziala, hau da, 6. maila lortzen duten langileek mintzamina arindu dezaten herri euskaldun baten 2 astetako oporrak eskuratzeko ahalmena izango dute, eta beren eta familiaren egoera eta janariaren gastuak Erakundearen kargu izango dira.

D - LANQBLEEM JOARS-ET@KKIAK

Eskatzen duten langileei, denboraldi batetarako euskaldun herrietara mintzamina arintzeko modua erraztuko zaie, hurrengo baldintzok gainditu behar dituztelarik hots: ezaupide maila egokia beharko dute eta Kutzako antolaketa beharriaz nek baimentze eduki duten neurrian.

Hontzaz, eskatzaileek ez dute langile-bolante moduan ibili beharrik, eskualdeko langile modura kontsideratuak izango baitira.

Guzti hauek beherago aipatzen diren baldintzenpean:

1.- Barru-ikastaroak egin aurretik, apuntatu diren ikasle guztiei, eta beren egokitasuna neurtzeko, ikastaroa egin ahal edo ezinezkoa bada, HABEK ebaluazio bat egingo die.

?,.- Halaber, eta gutxienez hilabetero, maila ezberdinak gainditzeko, HABEK beharrezko diren kontrolak egingo ditu. Emaizak Erakundera bidaliko ditu, eta honek hartuko ditu kasuan kasuko neurriak.

Modu berean ikastaroa etortzeak zerbitzuen mantenimendua bermaturik utziko du eta halaber, langilearen aldetik probetxamendu egoki minimo bat lortzen ez bada, Kutzak baimena izango du bertan ekiteko eskubidea eta laguntza kitatzeko.

3.- Erakundeko lanak eta beharrak, hala direnean antolatuzko egokia izango litzateke urteroko plangintza nahiz eta berezko urteaz burutze ez bateraturik Joan plangintza horren antolakuntza.

4.,- A.5 (aste txarjidakatuak) eta A.6 (mailen gora-behera) sistemetara jotzea hautabidezkoa da, hau da, sistema batek bestea baztertzen du, eta langile bakoitzak hauetariko bat egiteko bakarrik izango du ahalmena.

Enpresa Batzordeak proposatutako A.5 eta A.6 barru-ikastaro sistemiei buruz, aurrez jakin beharko da zenbat ikasle parte hartuko duen aurrekontuak egiteko eta honekin batera urteroko proposamenak egin eta onartzeko. Honez gain, Kutzako Zuzendatzaren jakinerazpean jarri beharko dira zenbat irakasle behar diren, non emango diren ikastaroak edo beste edozein interesdun gai.

§>.- Halaber, Enpresa Batzordetik zera jaso beharko da hots: Kutzaren eritziz, lan-antolakuntzak beharrezko dituen baldintzak betetzea; bai Sukurtsaletara langilean joan-etorrien hutsunak betetzeko. Guztionekin globalki behar izango den ordu kopurua betetzeko, kanpoko jendearekin denboraldiko kontratuak eginez, eta berau egiteko Kutzari ahalmena emon oztopoak jarri barik.

6.- «Euskara ikasteko eta Hobetzeko Plangintza» seronen arau guztiak interpretatzeko edo aldatzeko, ahalmen soila izango du Kutzak bere eritzi bakarrez.